

422/2013 DEKRETUA, urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzekoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

Maiatzaren 24ko 9/2012 Legeak, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea aldatzekoak, aldatu egin du, hirugarren artikulua honen bidez, abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 59.4 artikulua: «Nekazaritza- eta elikagaigintza-arloko industria orok, sozietate-egoitza edo instalazioen bat Euskal Autonomia Erkidegoan badu eta lege honetako eranskinean jasotako jardueraren bat egiten badu, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko du, zeina aurreikusita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.bis artikuluan, nahitaez eta funtzionamenduan jarri aurretik. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan sartuko dira Erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak, zeina Lege honetako 60. artikuluan sortzen baita».

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa sortu zuen maiatzaren 24ko 9/2012 Legeak. Legeak arautzen du erregistro horren barruan sartuko dela Euskal Autonomia Erkidegoko Ardo eta Edari Alkoholdunen Botilatzaille eta Ontziratzaileen Erregistroa, eta xedatzen du azken hori nekazaritzaren eta elikagaigintzaren gai-alorrean eskudun den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailari atxikiko dela eta interkonexioa izango duela Elikagaigintzako Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrearekin. Haren antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko direla arautzen du, era berean.

Zerbitzu-jardueren sarbiderako eta jarduera horiek egiteko askatasuna finkatu ondoren, establezimendu-askatasuna eta zerbitzuen prestazio askea arautzen ditu azaroaren 23ko 17/2009 Legeak. Horrez gainera, sinplifikazio administratiboa bermatzen du, eta Lege horrek berak araututakoak izango dira muga bakarrak. Hori horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak (hemendik aurrera NEIE esango diogu) izaera administratiboa izango du, nekazaritza eta elikadurako industrien gai-alorrean eskudun den sailak ikuskapen egokiak egin ditzan jarduera-arlo horretan. Ez da izango, beraz, erregistro eratzaillea, eta bai Administrazioaren tresna bat, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta elikadurako industrien jardueri buruzko informazioa eskuratzeko. Berariaz, adierazi berri ditugun industria-jarduera horiei buruzko informazioa emateko tresna izango da, eta informazio-zerbitzu hori emango die herri-administrazioei, herritarrei eta, bereziki, enpresa-sektoreari.

Horrek esan nahi du nekazaritza eta elikagaigintzako industrietan, lanean hasi baino lehen, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dutela haien jarduerari ekiteko, eta adierazpen horretan adierazi behar dutela, haien erantzukizunpean, bete egiten dituztela indarreko araubideak ezartzen dizkien jarduera-baldintzak. Horrenbestez, ez da beharrezkoa NEIE erregistroan inskribatuta izatea jarduerari ekin baino lehen.

Dekretu honek bete egiten du Nekazaritza eta Elikagaigintzari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 59.4 eta 60. artikuluek arautzen dutena.

Dekretu honek bete egingo du nekazaritza eta elikagaigintzako industrien erregistroaren gai-alorrean zegoen hutsunea eta lehen adierazitako erantzukizunpeko adierazpenen sistema berria arautuko du, industria horien jarduerari ekiteko baldintza izan dadin adierazpen hori.

Dekretu honek erantzukizunpeko adierazpenentzat arautzen duen erregimenaren eta NEIE erregistroaren egituraren eta funtzionamenduaren xede dira industria hauek: nekazaritza eta elikagaigintzako industriak, haragiki-industria, arrainkiena, landare eraldatuena, olio eta koipeena, esnekiak, errozaritza-industria, animaliak elikatze produktuak, ogigintzako produktuak, elikadurarako pastak, bestelako elikadura-produktuak, edariak, tabakoa, egur-produktuak, basoko produktuak, energia berriztagarriak eskuratzeko biomasa eta lehengai organikoak, ongarriak eta

substratuak, hainbat produktutarako hozkailu-biltegia eta nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den sailaren mendeko beste nekazaritza eta elikagaigintzako industria batzuk. Horrela, beraz, bete egiten dira abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa, eta abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen.

Betetzekoa da, era berean, maiatzaren 7ko 559/2010 Errege Dekretua, Industriako Erregistro Integratuaren Erregelamendua onartzekoa, eta, ondorioz, industria-alorrean eskudun den sailari bidali behar zaizkio lanketako eta fabrikazioko jardueretan diharduten nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien egindako erantzukizunpeko adierazpenak. Sail horrek, bere aldetik, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak kudeatzen duen Industriako Erregistro Integratura igorriko ditu adierazpen horiek.

Hori horrela izateko, egokitu egin behar izan da orain artean indarrean izan den sistema eta nabarmen aldatu da Erregistroaren eginkizuna. Aldaketa horien ondorioz, asko aldatu zaie nekazaritza eta elikagaigintzako industriei beren jarduerari ekiteko modua.

NEIE erregistroak informazio-izaera du, eta enpresaburuek aurkezten dituzten erantzukizunpeko adierazpenetako informazioa jasotzen du. Horrez gainera, izapide telematikoek ematen dituzten aukera berrietara egokituko da Erregistroa, Dekretu honen helburu eta xedeak azkarrago eta modu eraginkorragoan betetzen lagunduko duen tresna izan dadin.

Arau honek bost kapitulu, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien beren jarduerari ekiteko zer baldintza bete behar dituzten arautzen du Dekretu honen II. kapituluak. Erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzen du Dekretuko III. kapituluak eta Erregistroaren funtzionamendua IV. kapituluak. Zehapen-erregimena arautzen du, azkenik, V. kapituluak. Erregistroan integratzeko arauak dakartzate xedapen iragankorrek, ardoa eta/edo alkoholduen edariak botilaratzen eta/edo ontziratzen dituzten establezimenduek inskripzio-zenbakiei eutsiko dietela arautzen dute, eta araubide iragankorra finkatzen dute. Dekretuak indargabetzen dituen arauak adierazten ditu xedapen iragankorrek, eta arauzko garapena eta arauaren indarraldia finkatzen dituzte bi azken xedapenek.

Nekazaritzaren eta elikagaigintzaren alorretan eskudun den sailak landu du dekretu hau, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22.era bitartean xedatutakoa kontuan harturik.

Dekretu hau egiteko, kontsulta egin zaie hark eragiten dituen sektoreko erakunde adierazgarrienei, eta derrigorrezkoak diren txosten guztiak eskatu dira.

Hori guztia aintzat hartuta, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da nekazaritza eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta

Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea, nekazaritza eta elikagaigintzako sektoreen plangintza, antolamendua eta garapena egiteko behar den informazio iraunkor, bateratu eta eguneratu guztia izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek.

2. artikulua.– Definizioak.

Jarraian adierazten diren kontzeptuek definizio hau izango dute Dekretu honetan:

1.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industria: ekipo-ondasunen instalazioen multzoa eta haiek beharrezko dituzten instalazio osagarriak dira, baldin eta enpresa autonomiadunak osatzen badituzte, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak (arrainkiak barne) manipulatzeko. Industria horien produktuak ez dira saldu behar azken kontsumitzaileari edo haiek dauden udalerriko merkatuetara soilik.

2.– Industrien instalazioa: ekipo-ondasunen eta haiek behar dituzten azpiegitura eta instalazio osagarrien ezarpena da. Industria-jarduera independente baten moduan lan egiteko gai den produkzio-prozesu bat sarrarazi behar dute horiek guztiek.

3.– Ekipo-ondasunak: ondasun ukigarriak dira, manufakturak eta prozesuak egiten dituzten industrien ondarean sartzeko eskuratzen direnak. Zuzenean eta modu iraunkorrean parte hartzen dute produkzio-jardueran, landutako edo erdi-landutako produktu bihurtzeko lehengaiak.

4.– Instalaturako industrien aldaketak: aldaketak izango dira honako hauek:

a) Industriaren titulartasuna aldatzea eta/edo sozietate-izendapena aldatzea eta/edo forma juridikoa aldatzea: Industriak erregistroko fitxan duen titulartasuna aldatzea izango da, eta/edo sozietatearen izen edo deitura aldatzea, eta/edo industriaren forma juridikoa aldatzea.

b) Errentamendua. Industriaren aprobetxamendua aldi baterako lagatzea da. Kontratu baten bidez eta indarreko legediaren arabera egin behar da.

c) Lekualdatzea: industriaren kokalekua aldatzea da, aintzat hartu gabe haren prozesuak, ahalmenak eta/edo ekipo-ondasunak aldatzen diren ala ez.

d) Jarduera aldatzea: landutako edo egindako produktuak funtsean aldatzea da.

e) Handitzea: ekipo-ondasunen egoera aldatzea da, baina beti instalazioen ahalmen osoak edo partzialak handitzeko egiten bada. Handitzea izango da, era berean, instalazioak aldatzea eraikitako azalera handitzeko eta/edo industria-jarduera berri bat egitea, indarrean dagoen erregistro-inskripzioan ageri diren bestelakoa.

f) Murriztea: industriaren ahalmen osoa edo partziala txikitzea dakarren aldaketa da, bai haren ekipo-ondasunei dagokienez, bai eraikitako azalerei dagokienez, bai erregistratuta dauden industria-jarduerari dagokienez.

g) Ordezkatzea: antzeko ezaugarriak dituzten elementu berriekin ordeztea instalazioak, makinak, motorrak eta ekipo-ondasunen beste elementu batzuk, baldin eta produktuen kalitatea handitu edo dibertsifikatzeko egiten bada, haien hasierako ahalmena aldatu gabe.

h) Aldi baterako etetea: industriaren produkzio-prozesua aldi baterako etetea da. Aldi horrek ezin du hiru urtekoa baino luzeagoa izan.

i) Jarduera amaitzea edo jardueraren baja: Industriaren jarduera egiteari uztea da.

II. KAPITULUA

JARDUERARI EKITEKO ETA ALDAKETAK EGITEKO BALDINTZAK

3. artikulua.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien jarduerari ekiteko baldintzak.

Nekazaritza eta elikagaigintzako industrietan, aplikatzekoa den araudiak agintzen duena betetzeaz gain, baldintza hauek bete behar dituzte, Dekretu honek araututakoaren baitan:

1.– Baldintza hauek bete behar dituzte instalazioek:

a) Industriaren titularra pertsona juridikoa baldin bada, eratze-eskriturak eta sozietatearen estatutuak izatea, dagokion erregistroan behar bezala zigilatuta.

b) Alta-egoeran izatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

c) Industria-mota bakoitzari dagokion eskumena duen teknikariak idatzi eta izenpetutako proiektua izatea.

d) Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiria edukitzea, eta bertan adieraztea obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak bete egiten dituela betetzekoak dituen arau guztiak. Industriak haren instalazioen zati bat jartzen baditu funtzionamenduan, teknikari eskudun batek egindako ziurtagiri bat izan behar dute, eta ziurtagiri horrek azaldu egin behar ditu instalazioen aldi baterako funtzionamendu edo funtzionamendu partzialaren arrazoiak.

e) Jarduera egiteko behar den ingurumen-baimena edukitzea. Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

f) Elikagaigintzako eta elikagaien Enpresen Erregistro Orokor Sanitarioa edo osasun-baimena izan behar dute, baldin eta jarduera egiteko beharrezkoa bada haiek izatea.

2.– Baldintza hauek bete behar dituzte jatorrizko izendapena duten industrietan:

a) Artikulu honen 1. puntuan arautzen diren baldintzak bete behar dituzte.

b) Jatorrizko izendapenen araubide orokorra eta espezifikoa bete behar dute.

3.– Baldintza hauek bete behar dituzte nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egin nahi dituzten industrietan:

a) Artikulu honen 1. puntuan arautzen diren baldintzak bete behar dituzte.

b) Bete egin behar dute nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egin nahi dituzten industrien gaineko araubide orokorra eta espezifikoa.

4.– Baldintza hauek bete behar dituzte ontziratze eta botilaratzeko jarduerak egin nahi dituzten industrietan:

a) Artikulu honen 1. puntuan arautzen diren baldintzak bete behar dituzte.

b) Ontziratze eta botilaratzeko jarduerarako makineria egokia izan behar dute.

4. artikulua.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrietan aldaketak egiteko baldintzak.

1.– Dekretu honetan, Dekretu honen 2. artikuluko 4. paragrafoan arautzen diren egoerak izango dira instalatuta dauden industrien aldaketak.

2.– Aldaketek, kasuan kasu nabartuta, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Industriaren titularrak haren titulartasuna, sozietate-izendapena edo forma juridikoa aldatzea:

1) Industriaren pertsona titularrak titulartasuna, sozietate-izendapena edo forma juridikoa aldatzea behar bezala erregistratutako eskritura publiko bidez edo dohaintzako, ondare-eskualdaketako, ondorengotzako nahiz titulartasunaren aldaketa ahalbidetzen duen bestelako agiri juridiko pribaturen baten bidez. Ogasuneko likidazioa edo salbuespen-agiria erantsi beharko dira beti.

2) Industriaren pertsona titularrak titulartasuna, sozietate-izendapena edo forma juridikoa aldatzea, hari dagokion jarduera egiteko behar den ingurumen-baimenari dagokionez: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

3) Industriaren titulartasuna, sozietate-izendapena edo forma juridikoa aldatzeari ekitea Elikagaigintzako eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean edo osasun-baimenean, baldin eta Erregistroan inskribatzekoa baldin bada jarduera.

b) Errentamendua:

1) Errentamendu-kontratu bat izatea.

2) Industriaren titulartasuna aldatu izana haren jarduerarako behar den ingurumen-baimenean: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

3) Industriaren titulartasuna aldatzeari ekitea Elikagaigintzako eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean edo osasun-baimenean, baldin eta Erregistroan inskribatzekoa baldin bada jarduera.

c) Instalazioak edo jarduera obra zibil baten bidez lekualdatzea, jarduera aldatzea edo handitzea:

1) Proiektu orokor bat edo proiektu espezifikoak izatea, industria-mota bakoitzean eskudun den teknikari batek idatzia edo izenpetua, egitekoa den aldaketa azalduko dutenak.

2) Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiri baloratua izatea, eta bertan adieraztea obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak bete egiten dituela betetzekoak dituen arau guztiak.

3) Jarduerarako behar den ingurumen-baimena aldatu izana: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

4) Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorreko inskripzioa edo osasun-baimena aldatu izana, baldin eta jarduera Erregistroan inskribatzekoa baldin bada.

d) Makineria gehitzea obra zibilik gabe:

1) Instalazio berriak egitea edo makina berriak erostea.

e) Murriztea:

1) Erregistratuta dauden ekipo-ondasunak, eraikitako azalerak edo industria jarduerak murriztu izana.

2) Dagozkion aldaketak egin izana ingurumen-baimenean: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

3) Aldaketak egin izana Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Osasun Erregistro Orokorrean edo osasun-baimenean, baldin eta beharrezkoa bada hori egitea.

f) Ordezkatzea:

1) Erregistratuta dauden ekipo-ondasunak ordeztu izana.

g) Jarduera aldi baterako etetea, jarduera amaitzea edo baja hartzea:

1) Dekretu honetako 2.4.h) artikuluan arautzen den aldi baterako jarduera-etena gertatzea, edo Dekretu honetako 2.4.i) artikuluan araututako jarduera-amaiera edo baja-egoera gertatzea.

2) Baja hartuta izatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan edo, kasuan kasu, Zerga horretan jarduerarik gabeko egoeran izatea aldi baterako.

3) Industriari baja eman izana jarduerarako behar duen ingurumen-baimenean: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.

4) Industriari baja eman izana Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrean edo, jarduerak halakorik behar badu, osasun-baimenean.

3.– Jatorrizko izendapena duten industriet:

1) Artikulu honetako 2. puntuan arautzen diren aldaketa-egoeraren bateko baldintzak bete behar dituzte.

2) Jatorrizko izendapenen araubide orokorra eta espezifikoa bete behar dute.

4.– Nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egiten dituztela adierazten duten industriet:

1) Artikulu honetako 2. puntuan arautzen diren aldaketa-egoeraren bateko baldintzak bete behar dituzte.

2) Bete egin behar dute nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egin nahi dituzten industrien gaineko araubide orokorra eta espezifikoa.

5.– Ontziratze eta botilaratzeko jardueraren hasierari dagokion erantzukizunpeko adierazpena egiten duten industriet:

1) Artikulu honetako 2. puntuan arautzen diren aldaketa-egoeraren bateko baldintzak bete behar dituzte.

2) Ontziratze eta botilaratzeko jarduerarako makineria egokia izan behar dute.

III. KAPITULUA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN ERREGIMENA

5. artikulua.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien jarduerari ekitearen erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzen diren nekazaritzako eta elikagaigintzako industria guztiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute haien jarduerari ekin baino lehen.

2.– Aurreko puntuan arautu den erantzukizunpeko adierazpen hori aurkezten den unetik egin ahal izango dute beren jarduera nekazaritza eta elikagaigintzako industriet.

6. artikulua.– Nola aurkeztu nekazaritza eta elikagaigintzako industrien jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den organoko pertsona titularrari zuzenduko dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta elikagaigintzako industrien haien erantzukizunpeko adierazpenak, Dekretu honetako I. eranskinean arautzen diren sektoreetan eta han adierazten diren jardueretarako.

2.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da:

a) Bitarteko elektronikoak erabilia eta arau hauek betez: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, administrazio elektronikoari buruzkoa; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazio zuzendariarena, PLATEA e-administrazioarako plataforma teknologikoa ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

b) Edo hura nekazaritzaren eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den Saileko bulegoetan aurkeztuta (Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zk.; 01010 posta-kodea), edo hura industriaren alorrean eskudun den sailak EAEko lurralde historikoetan dituen lurralde-ordezkaritzen bulegoetan aurkeztuta, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4. artikulua arautzen dituen lekuetan. Bete egingo da, kasu guztietan, 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena adierazi berri diren lekuetan aurkezten bada, Dekretu honetako II. eranskinean jasotzen den ereduan aurkeztuko da. Web-orri honetan izango da eskuragarri: <http://www.euskadi.net>. Eredua bete eta informazioarako grabatu behar da, inprimatu eta izenpetuta igorri.

7. artikulua.– Aldaketei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Instalatuta dauden nekazaritza eta elikagaigintzako industrietan Dekretu honen 4. artikuluan araututako aldaketaren bat ematen bada, industria horiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute, aldaketa hori gertatu ondorengo sei hileko epean gehienez.

2.– Enpresek bitarteko elektronikoak balia dituzkete aldaketen erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko, Dekretu honen 8. artikulua araututako moduan. Borondatezkoa izango da bitarteko horien erabilera.

3.– Aldaketen erantzukizunpeko adierazpenak presentzian aurkezten badira, Dekretu honen 6. artikuluko 1. puntuak araututako moduan zuzendu eta aurkeztuko dira, Dekretu honen III. eranskinean jasota dagoen ereduan. Eredua hori web-orri honetan izango da eskuragarri: www.euskadi.net Eredua bete eta informazioarako grabatu behar da, inprimatu eta izenpetuta igorri.

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Bitarteko elektronikoak balia daitezke erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko eta prozedura horren gainerako izapideak egiteko, Dekretu honetan arautzen den moduan. Borondatezkoa izango da bitarteko horien erabilera.

2.– Izapidetze elektronikoa honako hauen bidez dago erregulatutik: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa-PLATEA- ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Bitarteko elektronikoak erabil daitezke prozedurako izapide guztiak egiteko, harik eta hura amaitzen den arte. Eskabideak egiteko eta agiriak aurkezteko baliabide elektronikoak eta telematikoak erabiltzeak ez dakar prozedurako hurrengo izapideetan haiek erabili beharra, eta erakunde interesdunak edozein unetan alda dezake izapide horiek egiteko komunikazio-kanala. Nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorretan eskudun den zuzendaritzari jakinarazi behar zaio erabaki hori, eta, beharrezkoa bada, jakinarazpenak egiteko leku bat adierazi beharko du interesdunak, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak arautzen duena betez.

4.– Gune elektroniko honetan izango dira eskuragarri prozedura bitarteko elektronikoen bidez izapidetzeko jarraibideak eta prozeduraren baitako ereduak: www.euskadi.net

5.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren, orri hau baliatuko da gainerako izapide elektronikoak egiteko eta espedientea ikusteko: www.euskadi.net/misgestiones

8 bis artikulua.– Ez-betetzeak eta jarduera etetea.

1.– Nekazaritza eta elikadurako industrien industria-jarduera garatzeko aplikagarria den legedian eskatzen diren funtsezko eskakizunak ez betetzeak, betiere jarduera motaren arabera, jarduera automatikoki etetea ekarriko du dagokion arduradunak ez-betetzearen berri izan bezain laster, ez-betetzea eragin duen egoera zuzentzen den arte.

2.– Nekazaritza eta elikadurako industrien arloko Sail eskudunaren administrazio-organo eskudunak bere kontrol- eta ikuskapen-jardunean jarduera garatzeko aplikagarria den legedian eskatzen diren funtsezko eskakizunen ez-betetzea gertatu dela baina jarduera ez dela eten egiaztatzen duenean, jarduera horretarako emandako Ebazpenaren bidez geldiaraziko du berehala, betiere interesdunari zer esateko duen entzuteko hiru egun balioduneko epea emanez.

3.– Jarduera eteteko ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea. Jarduerari ezingo zaio berriz ekin jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen egoera zuzendu arte eta nekazaritza eta prozeduran jarduten duen elikadurako industrien arloko Sail eskudunaren agintari eskudunak horrela egin dela egiaztatu arte, betiere uztailaren 16ko Industriari buruzko 21/1992 Legean ezarritakoari jarraiki.

8 ter artikulua.–

1.– Erantzukizun-adierazpenean jasotako funtsezko datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada edo horietakoren bat aurkeztu ez dela egiaztatzen bada, nekazaritza eta elikadurako industrien arloko Sail eskudunaren administrazio-organo eskudunak jarduera horretarako emandako Ebazpenaren bidez geldiaraziko du berehala, betiere interesdunari zer esateko duen entzuteko hiru egun balioduneko epea emanez.

2.– Jarduera eteteko ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea. Jarduerari ezingo zaio berriz ekin jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen egoera zuzendu arte eta nekazaritza eta prozeduran jarduten duen elikadurako industrien arloko Sail eskudunaren agintari eskudunak horrela egin dela egiaztatu arte, betiere uztailaren 16ko Industriari buruzko 21/1992 Legean ezarritakoari jarraiki.

3.– Erantzukizun-adierazpeneko edozein datu, adierazpen edo dokumentutan funtsezkoa ez den zer edo zer ez baldin bada zehatza, gezurra baldin bada edo faltan baldin badago eta horiek aurkeztea ezinbestekoa baldin bada, nekazaritza eta elikadurako industrien arloko Sail eskudunaren administrazio-organo eskudunak emango dio horren berri interesdunari, hain zuzen egutegiko 15 eguneko epean zehatza ez den, gezurra den edo falta den hori konpon dezan.

IV. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZAKO INDUSTRIEN ERREGISTROA

9. artikulua.– Helburuak.

Helburu hauek ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak:

1.– Dekretu honen I. eranskinean adierazten diren industrien jarduerari buruz behar den informazioa eskuratzea.

2.– Adierazi berri diren industria-jarduerari buruzko informazio-tresna izatea, zerbitzu bat eman diezaien herri-administrazioei, herritarrei, eta, bereziki, enpresen sektoreari. Hala ere, beti izango da betetzekoa Dekretu honek, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko 15/1999 Legeak eta gai-alor honetan betetzekoak diren gainerako arauak agintzen dituzten konfidentzialtasun-betebeharrak.

3.– Euskal Estatistika Planetan eta Urteko Estatistika Programetan zehazten diren estatistika-eragiketak egiteko behar diren datuak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Erakundearen maila operatiboa eratzen duten erakundeei. Apirilaren 23ko 4/1986 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa eta Estatistikaren Euskal Planari dagokion legeak arautzen dituzte haiek, estatistika-jarduerak antolatzen dituzten aldetik.

10. artikulua.– Izaera eta atxikitze organikoa.

1.– NEIE erregistroak izaera administratiboa du, nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den sailari atxikita dago, eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osorako.

2.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den organo administratiboaren titularra izango da NEIE erregistroko arduraduna, administrazio-organoren bidez, NEIE langileek eramango dute erregistroa eta prozedura informatikoen bidez kudeatuko dute hura.

3.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den saila izango da, nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den organoaren bidez, NEIE erregistroan datuak sartu, aldatu eta ezabatzearen arduradun bakarra.

11. artikulua.– Aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honetako I. eranskinean adierazten den jarduera-eremuan sartzen diren nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien establezimenduei eta jarduerari buruzko datuak jasoko ditu NEIE erregistroak, baldin eta haien helbide soziala edo instalazioetakoren bat Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

2.– Dekretu honetako I. eranskinean adierazten diren jardueraren bat egiten duten nekazaritzako eta elikagaigintzako industria eta establezimenduei aplikatuko zaizkie Kapitulu honetan adierazten diren arauak, bai eta ardoa eta edari alkoholduak ontziratzen eta botilaratzen dituztenei ere.

12. artikulua.– Erregistroan inskribatzea.

1.– Erregistroko arduradunak ofizioz egingo ditu inskripzioak NEIE erregistroan, nekazaritza eta elikagaigintzako industrien aurkezten dituzten erantzukizunpeko adierazpenetan adierazten diren datu oinarritzekoak, osagarriak eta berariazkoak aintzat hartuta.

2.– Era berean, Dekretu honetako 7. artikulua adierazten dituen erantzukizunpeko adierazpenak aintzat hartuta, Erregistroko arduradunak ofizioz egingo ditu jardueren amaierari eta artikulua horretan

adierazten diren gainerako aldaketei dagozkien oharpenak.

13. artikulua.– Erregistroaren edukia.

Datu hauek erregistratuko dira NEIE erregistroan:

1.– Oinarrizko datuak.

a) Enpresei buruzkoak:

– Identifikazio fiskaleko zenbakia.

– Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.

– Titularra (izen-abizenak, sozietatearen deitura edo izena).

– Sozietate-helbidea (helbidea, kokalekua, udalerrria, posta-kodea, lurralde historikoa).

– Telefonoaren eta faxaren zenbakiak, posta elektronikoa, web-orria eta URLa.

– Jarduera ekonomiko nagusia (Ekonomia Jardueren Sailkapenean adierazitakoa) eta, halakorik bada, egiten diren bestelako jarduerak.

b) Establezimenduei buruzko datuak:

– Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.

– Izendapena edo errotulua.

– Kokalekua (helbidea, kokagunea, udalerrria, posta-kodea, lurralde historikoa).

– Telefonoaren eta faxaren zenbakiak, posta elektronikoa, web-orria eta URLa.

– Jarduera ekonomiko nagusia (Ekonomia Jardueren Sailkapenean adierazitakoa) eta, halakorik bada, egiten diren bestelako jarduerak.

– Industria-mota adierazi, Dekretu honen I. eranskinean adierazten denaren arabera.

2.– Datu osagarriak.

Adierazitakoez gain, datu osagarri hauek jasoko dira Erregistroan:

– Industriaren titularra pertsona juridikoa bada, bazkideak identifikatuko dira.

– Erabilitako eta bukatutako produktuak zerrendatuko dira.

– Enplegatutako langileen dimentsio-adierazlea erregistratuko da.

– Kalitate-bereizgarriak.

– Azalerak eta orubeak.

– Elektrizitate-potentzia.

– Markak.

– Erregistratutako izen komertzialak.

– Establezimenduak derrigorrean inskribatuta izan behar duen erregistroetako inskripzio-zenbakiak; hala nola, Elikagaigintzako eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrekoa, eta establezimenduak izan beharreko osasun-baimenak.

– Establezimendua borondatez inskribatuta dagoen erregistroetako inskripzio-zenbakiak; hala nola, Ekoizpen Integratuko Operadoreen Euskadiko Erregistroa, Euskadiko Eskulangintza Ekoizleen Erregistroa, Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpeneko Operadoreen Erregistroa, eta beste erregistro batzuk.

– Kalitate-sistemen ziurtagiriak.

– Erantzukizunpeko adierazpena zer egunetan aurkeztu den eta zer organo eskuduni aurkeztu zaion. Jardueraren aldaketak edo amaiera jakinarazten badira, komunikazioak zer egunetan egin diren eta zer organo eskuduni aurkeztu zaizkion.

– Baldintzak, ikuskapenak eta zehapenak betetzearen egiaztapenei buruzko informazioa.

– Eraikinei buruzko datuak, eta, bereziki, haien azalera eta erabiltzen diren ustiatze-sistemak.

– Instalazioen deskribapena eta haien ezaugarriak, hala nola, zenbakia, fabrikazio-urtea, ahalmena eta balio ekonomikoa.

14. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ardoen eta Edari Alkoholdunen Botilaratzaileen eta Ontziratzaileen Erregistroa.

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 60.1 artikulua kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Ardoen eta Edari Alkoholdunen Botilaratzaileen eta Ontziratzaileen Erregistroa hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak.

Ardoa eta edari alkoholdunak botilaratzeko eta ontziratzekeo jarduera egiten duten industriak inskribatuko dira erregistro horretan, Dekretu honen 11. artikuluko 2. puntuak arautzen duen moduan.

15. artikulua.– Identifikazio-zenbakiak esleitzea.

1.– Jarduerari ekitearen erantzukizunpeko adierazpena jaso ondoren, identifikazio-zenbaki bat esleitu zaio establezimenduari NEIE erregistroko inskripzioarekin batera. NEIE erregistroko pertsona arduradunak enpresari jakinaraziko dio inskribatua izan dela eta esleitu zaion identifikazio-zenbatekoa adieraziko dio hurrengo hamabost egun baliadunen barruan.

2.– Bestalde, nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorrean eskudun den organo administratiboak berriazko identifikazio-zenbaki bat esleitu dio Dekretu honen 11. artikuluko 2. puntuan adierazten diren ardoen eta/edo edari alkoholdunen ontziratzaileen eta/edo botilaratzaileen jarduera horri.

16. artikulua.– Erregistrora sartzeko eta datuak zabaltzeko arauak.

1.– Datuen publizitatea:

a) Izaera publikoa dute 13. artikuluko 1. puntuan adierazten diren datu oinarrizkoek. Hala ere, titularrek eta interes zilegi eta zuzena egiaztatzen duten hirugarrenek soilik izango dute izaera pertsonaleko datuetara sartzeko aukera; izan ere, betetzekoak izango dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, lege organiko hori garatzeko erregelamendua onartu zuena.

b) Konfidentzialak izango dira NEIE erregistroan jasotzen diren gainerako datuak eta espedientean azaltzen diren bestelako datu teknikoak, eta haien tratamendu informatikoa edo

estatistikoa egin ondoren soilik zabaldu ahalko dira, agregatuta.

c) Enpresa-sektorearentzat eta, oro har, herritarrentzat interesekoak diren NEIEko datuak argitaratuko ditu aldiro nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorrean eskuduna den sailak, industria-jardueraren, haren lurralde-banaketaren eta bilakaeraren berri emateko.

2.– Datuetarako sarbidea.

Publikoa da Dekretu honen 13. artikuluko 1.a) eta 1.b) puntuetan adierazi diren datuetarako sarbidea, eta web-orri honetan ikusi ahal izango dira: www.euskadi.net.

Dekretu honen 13. artikuluko 2. puntuan adierazten diren datu osagarriak kontsultatzeko, aurretiazko kontsulta-eskaera bat egin beharko dute, idatziz, datu horiek jakiteko interes zilegia egiaztatzen duten pertsona fisiko eta juridikoek. Eskaera bitarteko elektronikoen bidez egiteko aukera izango da, baldin eta erregistroaren antolamenduak horretarako aukera ematen badu. Eskaera konkretuak egin behar dira, eta ondo mugatu behar da zer informazio eskatzen den.

3.– Estatistika-sekretua.

Ez zaizkio NEIE erregistroko datuen sarbideari eta publizitateari aurreko paragrafoetan arautu zaizkion mugak ezarriko estatistika-sekretuaz bermatutako estatistika-informazioari, eta bete egingo da, ondorioz, apirilaren 23ko 4/1986 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoak, horri buruz arautzen duena.

17. artikulua.– Herri Administrazioaren organoen arteko koordinazioa.

1.– NEIE erregistroa eta Industria Erregistroa elkarreragileak izango dira elkarren artean. Elikagaigintza eta Elikadurako Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrekin konektatuko da NEIE erregistroa, bitarteko elektronikoko edo telematikoen bidez.

2.– Sistema informatikoak elkarreragileak izango direla bermatzeko aplikazio informatikoak eta teknologiak eskuratuko dituzte eta hori egin ahal izateko neurriak hartuko dituzte osasunaren gai-alorrean, industriaren gai-alorrean eta nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorretan eskudun diren sailek.

3.– Erregistroetan jasota dauden datu komunetan izaten diren aldaketak hautemateko aukera eman behar du ezartzen den sistema informatikoak. Aldaketak hautematen direnean, erregistroetan sartuko dituzte organo eskudunek beharrezkoak izan daitezkeen eguneratzeak eta aldaketak, eta behar bezala jakinaraziko dira horiek guztiak.

4.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren eta Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorren arteko interkomunikazioa zabaldu egingo da nekazaritza-eta abeltzaintza-arloko organo eskudunek kudeatzen dituzten erregistroetara, ekoizpen primarioari lotuta dauden eta lehenengoan inskribatuta egon behar duten jardueri dagokienez.

V. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

18. artikulua.– Zehapen-araubidea.

1.– Zehapenak ezarriko dira Dekretu honetan arautzen diren betebeharrak urratzen badira, eta bete egingo da, alde horretatik, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak arautzen duen arau-hausteen eta zehapenen erregimena.

2.– Nekazaritza eta elikagaigintzako industrien gai-alorrean eskudun den zuzendaritzak egoki

irizten dituen ikuskapenak, egiaztapenak eta dokumentazio-eskaerak egin ditzake, baldin eta beharrezkoak irizten baditu jasotako datuen egiazkotasuna eta erregelamendu-baldintzak betetzen direla konprobatzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak errespetatu beharko dira zehapen-prozeduran.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan sartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan sartuko dira nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorrean eskudun den sailean nekazaritza eta elikagaigintzako industrietarako eratuta dagoen erregistroan inskribatuta dauden establezimenduei buruzko datuak, eta Erregistroko pertsona arduradunak identifikazio-zenbaki berri bat esleituko die, ofizioz.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Ardoa eta edari alkoholduak ontziratatu eta botilaratzeko jardueraren inskripzio-zenbakiak.

Beren tipologiari eta adierazpenari eutsiz jarraituko dute indarrean Dekretu hau indarrean jarri aurretik ardoa eta/edo edari alkoholduak ontziratatu eta/edo botilaratzeko jarduerak egiten dituzten establezimenduei esleitu zitzaizkien inskripzio-zenbakiak.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Izapidetze-egoeran dauden espedienteak.

Dekretu honek araututako moduan izapidetuko dira Dekretu hau indarren sartu aurretik hasitako espedienteak.

Hori horrela, dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute egoera horretan dauden industriek Dekretu hau indarrean jarri ondorengo hiru hileko epean. Nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorrean eskudun den organoak betebeharrak horren berri emango die aurretiaz industria horiei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 1990ko martxoaren 6an eman zuen Agindua, Elikagaigintzako Industrien erregistro-datuak eguneratzeari buruzkoa, eta indargabetu egiten dira, era berean, Dekretu honek araututakoa urratzen duten maila bereko edo baxuagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorrean eskudun den Saileko titularrak den pertsonari.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarra hartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

URRIAREN 7KO 422/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA
NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZAKO INDUSTRIEN JARDUERAK

1.– Haragien industria.

1) Ganadua hil eta/edo ganaduaren haragia kontserbatzea.

2) Hegaztiak hil eta/edo haien haragia kontserbatzea.

3) Haragia (eta/edo hegaztiak) piezatan zatitzea eta/edo haragi-produktu freskoak eta/edo izoztuak prestatzea (hegazti-haragia barne).

4) Erraiak, azpiproduktuak (gizakiek jatekoak ez direnak) eta/edo berariazko arriskua duen materiala eraldatu, tratatu eta/edo biltegitratzea.

5) Haragia eta haragi-produktu freskoak eta/edo izoztuak ontziratzea (hegazti-haragia barne).

6) Haragia eta haragi-produktu freskoak eta/edo izoztuak biltegitratzea (hegazti-haragia barne).

2.– Arrainen industria.

1) Arrainak, krustazeoak, moluskuak, zefalopodoak, gasteropodoak eta itsasoko beste animalia batzuk prozesatzea eta/edo kontserbatzea (araztegiak eta egosteko zentroak barne).

2) Arrainen kontserbak eta/edo erdi-kontserbak egitea.

3) Arraina, itsaskiak eta/edo itsasoko beste produktu fresko eta/edo izoztuak sailkatzea eta/edo ontziratzea.

4) Arraina, itsaskiak eta/edo itsasoko beste produktu fresko eta/edo izoztuak biltegitratzea.

3.– Landare eraldatuen industriak.

1) Patatak prozesatu eta/edo kontserbatzea.

2) Fruten, barazkien, lekaleen eta/edo beste landare-produktu batzuen (algen, fruitu lehorren eta antzerakoek) zuku freskoak eta/edo izoztuak egitea.

3) Frutak, barazkiak, lekaleak eta/edo beste landare-produktu fresko eta/edo izoztu batzuk (algak, fruitu lehorrak eta antzerakoak) bestelako eraren batean prozesatzea eta/edo kontserbatzea.

4) Frutak, barazkiak, lekaleak eta/edo beste landare-produktu fresko eta/edo izoztu batzuk (algak, fruitu lehorrak eta antzerakoak) sailkatzea eta/edo ontziratzea.

5) Patata, fruta, barazki, lekale eta/edo beste landare-produktu fresko eta/edo izoztu batzuk (algak, fruitu lehorrak eta antzerakoak) biltegitratzea.

4.– Olio eta koipeen industriak.

1) Margarina eta/edo antzeko koipe jangarriak egitea.

2) Oliba-olioa egitea.

3) Beste olio eta/edo koipe jangarri batzuk egitea.

4) Olio eta/edo koipe jangarriak fintzea.

5) Olio eta/edo koipe jangarriak ontziratzea.

6) Olioak, koipeak eta/edo hazi oliodunak biltegitratzea.

5.– Esnearen industria:

1) Izozkiak egitea eta ontziratzea.

2) Gaztak egitea eta/edo ontziratzea.

3) Esnea prestatzea, eraldatzea eta/edo kontserbatzea.

4) Esnekiak egitea eta/edo kontserbatzea.

5) Esnea eta/edo esnekiak ontziratzea.

6) Esnea eta/edo esneki fresko eta izoztuak biltegitratzea.

6.– Errotagintza.

1) Errotagintzako produktuak, almidoiak eta almidoizko produktuak egitea.

2) Errotagintzako produktuak, almidoiak eta almidoizko produktuak ontziratzea.

3) Zerealak eta/edo haziak ontziratzea.

4) Zerealak eta/edo haziak gordetzea eta/edo biltegitratzea.

7.– Animalientzako janarien produktuen industriak.

1) Granjako animaliak elikatzeko produktuak egitea.

2) Konpainiako animaliak elikatzeko produktuak egitea.

3) Granjako edo konpainiako animalien janariak ontziratzea.

4) Animalientzako janariak biltegitratzea.

8.– Okindegiko produktuen eta jateko pasten industriak.

1) Ogia eta/edo pastelak, opilak eta/edo gozogintzako produktuak egitea.

2) Gaileta, okindegiko produktu, pastel, opil eta/edo iraupen luzeko gozogintza-produktu fresko eta izoztuak egitea.

3) Jateko pastak, kuskusa eta/edo antzeko produktu fresko eta izoztuak egitea.

4) Okindegiko produktu, pastel, opil, gozogintzako produktu eta/edo jateko pasta fresko eta izoztuak ontziratzea.

5) Okindegiko produktu, pastel, opil, gozogintzako produktu eta/edo jateko pasta fresko eta izoztuak biltegitratzea.

9.– Jateko produktuen industriak.

1) Azukrea egitea eta/edo ontziratzea.

- 2) Kakaoa, txokolatea eta/edo gozokiak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 3) Kafea, tea eta infusioak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 4) Eztia erauztea eta/edo ontziratzea.
 - 5) Espeziak, saltsak eta/edo gozagarriak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 6) Prestatutako platerak eta janariak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 7) Jateko prestakin homogeneousatuak eta/edo janari dietetikoak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 8) Haurren elikadurarako prestakinak egitea eta/edo ontziratzea.
 - 9) Elikadurarako edo jateko beste produktu batzuk egitea eta/edo ontziratzea.
 - 10) Lurreko gasteropodoak (barraskiloak) prestatzea, sailkatzea eta/edo ontziratzea.
 - 11) Arrautzak erauztea eta/edo ontziratzea.
 - 12) Arrautza likidoa eta/edo arrautza-produktuak egitea.
 - 13) Elikadurarako produktu eta/edo elikagai hotz eta/edo izoztuak biltegitratzea.
- 10.– Edarien industriak.

- 1) Freskagarriak, alkoholik gabeko edariak eta/edo analkoholikoak egitea.
 - 2) Edari alkoholdunak destilatzea, errektifikatzea eta/edo nahastea.
 - 3) Edariak eta/edo haren eratorriak egitea.
 - 4) Aperitiboak eta ardo mikatzak egitea.
 - 5) Sagardoa eta/edo fruta hartzituzko bestelako edariak egitea.
 - 6) Destilatu gabeko beste edari batzuk egitea, hartziduraz egindakoak.
 - 7) Garagardoa egitea.
 - 8) Aperitiboak eta edari mikatzak egitea, ardozkoak izan ala ez.
 - 9) Alkoholaz gabetutako edariak egitea.
 - 10) Ur edangarri prestatua ekoiztea.
 - 11) Izotza egitea.
 - 12) Edariak ontziratzea.
- 11.– Tabakoaren industria.

12.– Egurraren industria (ez dira egurraren industriaren parte izango tropikoetako egurra edo Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoen espezieren bateko egurra eraldatzen duten enpresak).

- 1) Basoak ustiatzea: mendian egurrak moztea eta garraiatzea.
- 2) Egurraren lehen eraldaketa: azala kentzea, zerratzea, lehortzea edo birrintzea.

3) Erabilera zuzeneko produktu landuak egitea egurrarekin.

4) Beste egur-produktu batzuk.

13.– Basoko produktuen industriak:

1) Perretxikoak eta/edo basoko fruituak prozesatzea eta/edo kontserbatzea.

2) Perretxikoak eta/edo basoko fruituak ontziratzea eta/edo biltegitratzea.

14.– Biomasa eta lehengai organikoen industria, energia berriztagarriak sortzekoa.

15.– Ongarrien industriak.

1) Simaurrak, ongarriak, substratuak eta/edo landareen nutriziorako produktuak egitea.

2) Simaurrak, ongarriak, substratuak eta/edo landareen nutriziorako produktuak gordetzea eta/edo biltegitratzea.

16.– Hotzean eta modu anitzean biltegitratzeko industriak.

17.– Nekazaritzako eta/edo elikagaigintzako beste industria batzuk.

URRIAREN 7KO 422/2013 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

JARDUERAREN HASIERAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAPENA

..... NAN/IFK duen

enpresaren ordezkari naizen aldetik, nik,

jaunak/andreak, NAN zenbakia dudanak eta

ordezkari gisa jarduteko lege-ahalorde nahikoa dudan honek, honako hau ADIERAZTEN DUT ERANTZUKIZUNPEAN:

1.– Fitxak enpresari buruz ematen dituen datu tekniko eta ekonomikoak egiazkoak dira.

2.– Ordezkatzen dudan enpresak bete egiten ditu urriaren 7ko 422/2013 Dekretuaren 3. artikulua arautzen dituen baldintzak –422/2013 Dekretua, urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzekoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa–.

3.– Baldintza horiek eta haiei lotutako egiaztapenak betetzen direla kreditatzeko dokumentazioa du enpresak, eta berehala aurkeztuko dio hura agintari eskudunari, agintari horrek kontrolak edo ikuskapenak egiteko eskatzen dizkionean. Ondoren zehazten da dokumentazio hori.

A) Instalazioentzat:

Sozietatearen eratze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistroan zigilatuak.

Enpresaren IFZ / NAN.

Proiektu orokorra eta/edo espezifikoak, industria-mota bakoitzean jarduteko eskuduna den teknikari batek idatziak eta izenpetuak.

Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiria, obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak betetzekoak dituen arau guztiak betetzen dituela adierazten duena. Industriak haren instalazioen zati bat jartzen badu funtzionamenduan, teknikari eskudun batek egindako ziurtagiri bat izatea, instalazioen aldi baterako funtzionamenduaren edo funtzionamendu partzialaren arazoak azaltzen dituena.

Jarduerarako behar den ingurumen-baimena. Jarduerak beharrezkoa baldin badu, jarduera sailkatuari dagokion lizentzia, aurretiazko komunikazioa, erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-baimen bateratua, edo jarduera sailkatuaren udal-lizentzia.

Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Orokor Sanitarioaren ziurtagiria edo osasun-baimena, baldin eta jarduera egiteko beharrezkoa bada haiek izatea.

B) Jatorrizko izendapena duten industrientzat:

Kontseilu arautzaileak emandako ziurtagiria, jatorrizko izendapena eskatu izana adierazten duena.

C) Nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egiten dituztela adierazten duten industrientzat:

Dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, izaera hori aitortzea eskatu dela adierazten duena.

D) Ontziratze eta botilaratzeko jardueraren hasierari dagokion erantzukizunpeko adierazpena egiten duten industrientzat:

Botilaratzeko makineria izatea egiaztatzen duten fakturak edo dokumentazioa.

..... (a)n 20 (e)koren(e)an

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

ENPRESAREN DATU TEKNIKOAK ETA EKONOMIKOAK

IE-1 EREDUA (Industria jarduerak eta establezimenduak)

Establezimendu berria

Aldaketa Zabaltzea edo murriztea

Titulartasuna aldatzea edo Errentan hartzea

Lekualdatzea

Berrikustea

Jarduerari uztea edo baja ematea

Industria Erregistroko Inskripzio zenbakia:

(1) Erregistro Berezia	
Erregistro Bereziko zk.	
EJSN	

ENPRESAREN DATUAK

Izena edo helbide soziala:			
Kalea:		Posta K.:	
Herria:	Udalerrria:		
Telefono zk.:	Fax zk.:		
Posta elektr.:	Web orr.:		

KAPITAL SOZIALA

Euroak	
--------	--

PERTSONALA

Batezbesteko langile kopurua:	
-------------------------------	--

INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK

Izena edo errotulua:			
IFZ:			
Jarduera:			
Udalerrria:	Posta K. :		
Herria:	Herriaren Kodea:		
Lurralde Historikoa:			
Kalea:	ZK.:		
Telefonoa:	Fax zk.:		
Posta elektronikoa:			
EAEn dauzkan establezimenduak, hau barne:			
Ingurumen-inpaktuaren adierazpena dauka:	Bai []	Ez []	

ORUBEAK

Orubeak:		m ²
----------	--	----------------

POTENTZIA ELEKTRIKOA

Kontratatua:		kW	kVA
--------------	--	----	-----

Enpresaren izaera Juridikoa	Kide bakarrekoa <input type="checkbox"/>	S.A. <input type="checkbox"/>	S.M. <input type="checkbox"/>	E.N.S. <input type="checkbox"/>	Koop. <input type="checkbox"/>	O.E. <input type="checkbox"/>	S.A.L. <input type="checkbox"/>	S.Z. <input type="checkbox"/>	Bestelakoak <input type="checkbox"/>
Bazkideak				IFZ-NAN		Partaidetza %			
.....						
.....						
.....						
.....						
.....						
.....						
.....						

INDUSTRIA MOTA (l. eranskiniean begiratu)

--

JARDUERA NAGUSIAK
(garrantziaren arabera ordenatu)

KODEA (l. eranskiniean begiratu)

IZEN KOMERTZIALAK

MARKA KOMERTZIALAK

KALITATEAREN BEREIZGARRIAK

Jatorri-deitura:	
Eusko Labela:	
AGB:	

BESTELAKO ERREGISTROAK

Osasun-erregistro zk (1.):		Alta-eguna:	
Osasun-erregistro zk (2.):		Alta-eguna:	
Osasun-erregistro zk (3.):		Alta-eguna:	
Nek. ekologikoko erreg-zk:		Alta-eguna:	
Eko. integratuko erreg-zk.:		Alta-eguna:	

KALITATE SISTEMEN ZIURTAGIRIAK

LORTU DENEKO DATA

UNE-EN-ISO 9001:		
UNE-EN-ISO 14001:		
UNE-EN-ISO 22000:		
A.P.P.C.C.:		
B.R.C.:		
I.F.S.:		

LEHENGAIK (urteko datuak)

Kodeak (2)	Deskripzioa	Kopurua	Unitatea
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			

Indarrean dagoen testu konsolidatua

Deskripzioa eta ezaugarriak (makinak, edukiontziak eta abar)	Kop.	Fabrikazio urtea	Edukiera (litroak)	Balio ekonomikoa €

(1) Administrazioak bete beharreko datuak.

(2) 331/2003 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 14koa, Jardueren araberako Produktuen Sailkapen Nazionala (JPSN-96) onartzen duen urtarrilaren 26ko 81/1996 Errege Dekretua indargabetzen duena eta JPS-2002 sailkapenaren erabilerari buruzko arau aplikagarriak ezartzen dituena.

URRIAREN 7KO 422/2013 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

ALDAKETEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... NAN/IFK duen

enpresaren ordezkari naizen aldetik, nik,

jaunak/andreak, NAN zenbakia

dudanak eta ordezkari gisa jarduteko lege-ahalorde nahikoa dudan honek, honako hau ADIERAZTEN DUT ERANTZUKIZUNPEAN:

1.– Urriaren 7ko 422/2013 Dekretuaren 4. artikulua araututako aldaketa-egoeretako bat gertatu da ordezkari dudako enpresan –422/2013 Dekretua, urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industriaren erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industriaren Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa–.

2.– Fitxak enpresari buruz ematen dituen datu tekniko eta ekonomikoak egiazkoak dira.

3.– Aldaketa horiek egiteko baldintzak eta haiei lotutako egiaztapenak betetzen direla kreditatzeko dokumentazioa du enpresak, eta berehala aurkeztuko dio hura agintari eskudunari, agintari horrek kontrolak edo ikuskapenak egiteko eskatzen dizkionean. Ondoren zehazten da dokumentazio hori.

A) Industriaren titulartasuna aldatzea, eta/edo sozietate-izendapena aldatzea eta/edo forma juridikoa aldatzea:

- Titulartasun-aldaketa kreditatzen duen agiria: behar bezala erregistratutako eskritura publikoa edo dohaintzako, ondare-eskualdaketa, ondorengotzako nahiz titulartasunaren aldaketa ahalbidetzen duen bestelako agiri juridiko pribatua. Ogasuneko likidazioa edo salbuespen-agiria erantsi beharko dira beti.
- Jarduteko behar den ingurumen-baimenean industriaren titulartasuna aldatu izana egiaztatzen duen agiria: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurreiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.
- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrean edo, jarduerak halakorik behar badu, osasun-baimenean enpresaren titulartasuna aldatu dela egiaztatzen duen agiria.

B) Errentamentua:

- Bi aldeek formalizatutako errentamendu-kontratua.
- Jarduteko behar den ingurumen-baimenean industriaren titulartasuna aldatu izana egiaztatzen duen agiria: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurreiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.
- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrean edo, jarduerak halakorik behar badu, osasun-baimenean enpresaren titulartasuna aldatu dela egiaztatzen duen agiria.

C) Instalazioak edo jarduera obra zibil baten bidez lekualdatzea, jarduera aldatzea edo handitzea:

- Proiektu orokorra edo proiektu espezifikoak, industria-mota bakoitzean eskudun den teknikari batek idatziak edo izenpetuak, egiteko den aldaketa azalduko dutenak.

- Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiria, obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak betetzekoak dituen arau guztiak betetzen dituela adierazten duena.
- Jarduteko behar den ingurumen-baimenean aldaketa egin dela egiaztatzen duen agiria: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.
- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrean edo, jarduerak halakorik behar badu, osasun-baimenean aldaketa egin dela egiaztatzen duen agiria.

D) Makineria gehitzea obra zibilik egin gabe:

- Instalazio berrietako obrak egin izana eta edo makineria berria erosi izana egiaztatzen duten fakturak edo egiaztagiria.

E) Murrizketak:

- Murriztu diren ekipo-ondasunak, eraikitako azalera eta/edo industria-jarduerak komunikatzea.
- Jarduteko behar den ingurumen-baimenean aldaketa egin dela egiaztatzen duen agiria: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua, halakorik behar bada kasuan-kasuan.
- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario Orokorrean edo, jarduerak halakorik behar badu, osasun-baimenean aldaketa egin dela egiaztatzen duen agiria, baldin eta murrizketa egiteko hori egin behar bada..

F) Ordezkatzea:

- Makineria berria erosi dela egiaztatzen duten fakturak edo banku-egiaztagiria eta zer ekipo-ondasun ordezkatzen duten jakinaraztea.

G) Aldi baterako etena, jarduera amaitzea edo baja hartzea:

- Dekretu honetako 2.4.h) artikuluan arautzen den aldi baterako jarduera-etena gertatu dela edo Dekretu honetako 2.4.i) artikuluan araututako jarduera-amaiera edo baja-egoera gertatu dela kreditatzen duen dokumentazioa.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan hartutako bajaren agiria edo, kasuan kasu, Zerga horretan aldi baterako jarduerarik gabeko egoeran izango dela ziurtatzen duen agiria.
- Jarduteko behar den ingurumen-baimenean enpresak baja hartu duela edo jarduera amaitu duela adierazten duen agiria: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen bateratua.
- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Sanitario orokorrean edo dagokion osasun-baimenean enpresak baja hartu duela edo jarduera amaitu duela adierazten duen agiria.

H) Jatorrizko izendapena duten industrietan:

- Kontseilu arautzaileak emandako ziurtagiria, jatorrizko izendapena eskatu izana adierazten duena.

I.- Nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak adierazten dituzten industrietan.

- Dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, izaera hori aitortzea eskatu dela adierazten duena.

J) Ontziratze eta botilaratzeko jardueraren hasierari dagokion erantzukizunpeko adierazpena egiten duten industrietan:

- Elikagaigintzako eta Elikagaien Enpresen Erregistro Orokor Sanitarioaren ziurtagiria, baldin eta jardura egiteko beharrezkoa bada.
- Botilaratzeko makineria izatearen adierazpena.

..... (a)n 20 (e)koren(e)an

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

ENPRESAREN DATU TEKNIKOAK ETA EKONOMIKOAK

IE-1 EREDUA (Industria jarduerak eta establezimenduak)

Establezimendu berria

Aldaketa: Zabaltzea edo murriztea

Titulartasuna aldatzea edo Errentan hartzea

Lekualdatzea

Berrikustea

Jarduerari uztea edo baja ematea

Industria Erregistroko Inskripzio zenbakia:

(1) Erregistro Berezia:	
Erregistro Bereziko zk.:	
EJSN:	

ENPRESAREN DATUAK

Izena edo helbide soziala			
Kalea:		Posta K.:	
Herria:		Udalerria:	
Telefono zk.:		Fax zk.:	
Posta elektr.:		Web orr.:	

KAPITAL SOZIALA

Euroak	
--------	--

PERTSONALA

Batezbesteko langile kopurua	
------------------------------	--

INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK

Izena edo errotulua:			
IFZ:			
Jarduera:			
Udalerria:		Posta K.:	
Herria:		Herriaren Kodea:	
Lurralde Historikoa:			
Kalea:		ZK.:	
Telefonoa:		Fax zk.	
Posta elektronikoa:			
EAEEn dauzkan establezimenduak, hau barme:			
Ingurumen-inpaktuaren adierazpena dauka:	Bai []	Ez []	

ORUBEAK

Orubeak:		m ²
----------	--	----------------

POTENTZIA ELEKTRIKOA

Kontratatua:		kW	kVA
--------------	--	----	-----

Enpresaren izaera Juridikoa	Kide bakarrekoa <input type="checkbox"/>	S.A. <input type="checkbox"/>	S.M. <input type="checkbox"/>	E.N.S. <input type="checkbox"/>	Koop. <input type="checkbox"/>	O.E. <input type="checkbox"/>	S.A.L. <input type="checkbox"/>	S.Z. <input type="checkbox"/>	Bestelakoak <input type="checkbox"/>
Bazkideak			IFZ-NAN			Partaidetza %			
.....					
.....					
.....					
.....					
.....					
.....					
.....					

INDUSTRIA MOTA (I. eranskinian begiratu)

--

JARDUERA NAGUSIAK (Garrantziaren arabera ordenatu)

KODEA (I. eranskinian begiratu)

IZEN KOMERTZIALAK

MARKA KOMERTZIALAK

KALITATEAREN BEREIZGARRIAK

Jatorri-deitura:	
Eusko Labela:	
AGB:	

BESTELAKO ERREGISTROAK

Osasun-erregistro zk (1.):		Alta-eguna:	
Osasun-erregistro zk (2.):		Alta-eguna:	
Osasun-erregistro zk (3.):		Alta-eguna:	
Nek. ekologikoko erreg-zk.:		Alta-eguna:	
Eko. integratuko erreg-zk.:		Alta-eguna:	

KALITATE SISTEMEN ZIURTAGIRIAK

LORTU DENEKO DATA

UNE-EN-ISO 9001:		
UNE-EN-ISO 14001:		
UNE-EN-ISO 22000:		
A.P.P.C.C.:		
B.R.C.:		
I.F.S.:		

LEHENGAIAK (Urteko datuak)

Kodeak (2)	Deskripzioa	Kopurua	Unitatea
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			

Deskripzioa eta ezaugarriak (makinak, edukiontziak eta abar)	Kop.	Fabrikazio urtea	Edukiera (litroak)	Balio ekonomikoa €

- (1) Administrazioak bete beharreko datuak.
- (2) 331/2003 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 14koa, Jardueren araberako Produktuen Saikapen Nazionala (JPSN-96) onartzen duen urtarrilaren 26ko 81/1996 Errege Dekretua indargabetzen duena eta JPS-2002 saikapenaren erabilerari buruzko arau aplikagarriak ezartzen dituena.